



elkartea@feuse.org
www.feuse.org

Farmaberi

FARMAZIALARI EUSKALDUNEN ELKARTEA

Aurtengo Batzar Orokorra eta jai eguna Bilbon



**Feuseren Farmaburua
Bizkaiko Farmazialarien
Elkargo Ofizialeko
Euskara-taldeari**

Atsegin handiz jakinarazten dizugu datorren martxoaren 29an, igandean, Farmazialari Euskaldunen Elkartearen XIV. Batzar Orokorra eta urteroko jai eguna Bilbon ospatuko dugula, Bizkaiko Farmazialarien Elkargo Ofizialean, hain zuzen. Egun berean, batzarra bukatu ondoren, Feuseren Farmaburua Bizkaiko Farmazialarien Elkargo Ofizialeko Euskara-taldeari emango diogu. Dakizunez, Feusek, 2004an, farmaziaren arloan euskararen erabilera bultzatzeko, indartzeko eta normalizatzeko egiten diren ekimenak, egitasmoak eta ekintzak eskertzeko Feuseren Farmaburua sortu zuen eta edozein gizabanakok, taldek, erakundek edo elkartek eskuratu ahal du. Garaikurra Bernat Vidal eskultoreak egindako artelana da eta bi urtean behin ematen dugu.

Lehen Feuseren Farmaburua EHUko Farmazia Fakultateak eskuratu zuen 2004an, fakultatean bertan, euskararen erabilera normalizatzearen alde emandako aurrepausoengatik.

2006koa Miren Fuldain lankideari eman genion. Mirenek maisu-formulak egin ahal izateko ehun bat erabilera-orri prestatu zituen euskaraz. Getariako bere farmazian euskaraz lan egiten du. Horrez gainera, bere pazienteei eta lagunei zuzendutako hamaika osasun-txartel eta osasun-ahol-

ku euskaratu ditu eta, gero, egindako lana beste lankideoi eskaini.

Oraingoan, Elkarteko Zuzendaritza batzordeak, atsegin handiz, Feuseren Farmaburua Bizkaiko Farmazialarien Elkargo Ofizialeko Euskara-taldeari ematea erabaki du, farmazia arloan euskararen erabilera bultzatzeko eta normalizatzeko egiten duten lan ederragatik. Azken orrialdean dituzu lankide jator horien merezimenduak.

Oso pozik goaz berriro Bilbora. Izan ere, duela bost urte, 2004ko martxoaren 28an, Bizkaiko Farmazialarien Elkargo Ofizialean Feuseren IX. Batzar Orokorra egin genuen Bilbon. Batzarraren ondotik, Javier Saenz de Buruaga lankidea omendu genuen. Egun ahaztezina izan zen. Izan ere, Bizkaiko lankideok prestatutakoa eta egindako harrera bikaina izan zen eta Javierri egindako omenaldia benetan hunkigarria.

Egitaraua eta gainerako zehaztasunak hurrengo egunetan jasoko dituzu; beraz, adi egon: datorren martxoaren 29an, igandean, Bilbon duzu hitzordua. Aukera bikaina ondo pasatzeko eta berriketaldi atsegina egiteko. Ez huts egin!





Homeopatia Kide-tasun-fenomenoa aplikatzen duen Metodo Terapeutikoa da batez ere, eta gai sendagarriak Dosi Indarge edo Infinitesimaletan erabiltzen ditu.

Kide-tasun-fenomenoa zer den azalduko dugu lehenbizi:

Gertaera fisiologiko baten konstatazioa da; izan ere, duela bost mende hortaz hitz egiten hasi zen Hipocrates eta haren eskola.

Hain zuzen ere, ohartu zen paralelotasun-ekintza bat zegoela, sarritan, gai baten ahalmen toxikologikoaren eta gai horren sendatzeko ahalmenaren artean.

Esate baterako, otsababa zurriak (*Veratrum Album*) beherrakoa eta okada biziak eta deshidratazioa eragiten ditu toxikologikoki; baina landare bera, dosi txikitik, Asiako kolerearen epidemiak tratatzeko erabiltzen zuten; garai hartan, ikaragarri zitalak ziren baitziren. Halaxe esaten zuen Hipokratesek: "Gaitza sortu duten gauza berek sendatzen dute".

Ondorengo mendeetan, beste mediku batzuek antzeko gauzak esan zituzten, baina haietatik ondorio orokorrik ateratu gabe. XVIII. mendearen amaiera arte itxaron behar izan genuen, 1790. urtera arte, hain zuzen ere. Izan ere, Alemaniako sendagile batek, Christian Samuel Hahnemann-ek –baita kimikari, toxikologo eta linguista adituak– esperimentera eta zientifikoki frogatzen ahalegindu zen ondorio hipokratikoa, aforismoa baino gehiago izan zitekeena. Horrela jokatu zuen, bi alditan:

- Hasiera batean, toxikologiaren datu ezagunak elkartu zituen eta esperimentera-



Zer da homeopatia? Homeopatiaren oinarriko abiaburuak (1)

AUTOREA: JOSEBA RUIZ GOLVANO | ITZULTZAILEA: JUANJO PEREZ MTNEZ. DE LA HIDALGA

ak egin zituen, bai bere buruan, bai ingurukoenetan (senide eta lagunenetan). Garai hartako farmakoperearen hainbat substantzien efektuak baliatu zituen (ira-bellarra, belladonna, arsenikoa, ...), produktu horiek zer nolako ondorioak eragiten zituzten jakiteko.

- Substantzia berberak erabili zituen ondoren, baina eragile terapeutiko gisa, esperimentera eragindako antzeko sintomak zituzten gaitxoengan.

Orduan azaldu ahal izan zuen Hipokratesek laburtutako fenomenoa egiaztatzen egiten de-

la, beti ere dosi terapeutiko indarge edota infinitesimalak erabiltzen direnean.

Esate baterako:

- erle batek pertsona osasuntsu bati ziztada egiten badio, ziztadaren eremuan bat-bateko edema gorri-arrosa azalduko zaio, azkura eragiten dio, erre egiten dio, eta senari jarraituz, pertsona hori mina arintzen ahalegintzen da hotza aplikatuz;
- bat-batekoa, min zorrotzeko, berotasun handikoa eta aplikazio hotzekin hobera egiten duen edema-erupzioa duen gaixo batekin aurkitzen

bagara, eta edema-erupzioa kausa desberdinek sortzen ahal badute (eguzki erredu-rengatik, elikagaietan jatorria duen urtikaria...), erlearen pozoiaren dosi infinitesimalak administratuta sintomak hobera egiten dute.

Modu honetan, behaketa bidez, esperimentera bidez, Hahnemannek frogatzen du hipotesi hipokratikoa egiaztatzen dela: "medizina gaiek sor dezaketen sintomen antzekoak diren sintomak sendatzeko gai dira"; Antzekotasunaren Legea deitzen den biologia orokorreko fenomeno bat da.

Labelling, TTOs, ward... gako-hitzak ziren. Nire lehenengo laneguna zen Londreseko St. George's Ospitaleko Farmazian. Sei hilabete eman ditut bertan. Nire egitekoa hilabete horietan guztietan, Ospitaleko Farmaziako farmazialariaren zeregina ezagutzea eta ikastea izan da.

Lehen egunetan, beste teknikari eta farmazialarirekin, dispensazio-lekuan lan egin nuen. Gure zeregina "labelling" prestatzea zen, hau da, pazienteei preskribatutako medikamentuak eta horiei zegozkien etiketak prestatzea. Etiketatzen posologia eta medikamentu bakoitzaren administrazio-argibideak zehatz-mehatz adierazi behar genituen. Horrela, paziente bakoitzak espresuki berarentzat prestatutako medikazioa hartzen du eta, huts egiteak, bestalde, jaisten dira. Adia gauza guztietan jarri behar zen; printzipio eraginkorrek, forma farmazeutikoek eta paziente bakoitzak indikazio desberdinak baitzizuten. Lan horrek Erresuma Batuako medikamentu erabilienetara zein horien dosietara ohitzen lagundu zidan.

Horiexek izan ziren sistemarekiko nire lehenengo harremanak. Gero, "wards-etara" (pazienteen solairuetara) bidali ninduten. Egunero, farmazialari-arduraduna dagokion solairura (giltzurrunekoa, plastikoa, pediatria, onkologia...) igotzen da bere lana egitera. Eri-zain-taldearekin harremanetan jartzen da eta horiek paziente berriei buruz jakinaren gainean jartzen dute, baita denbora gutxi barru zeintzuk hartuko duten alta ere; halaber, paziente baten egoera nabarmen aldatzen denean. Paziente bakoitzaren ohiko medikazioa zein den jakitea oso garrantzitsua da; halaber, medikamentuekiko erreakzio alergikoren bat duen ala ez. Horrela, medikamentu berriren bat agintzen bazaio, horien arteko bateraezintasunik zein aurkako erreakziorik ez sortzea ziurtatzen da. Bestalde, ospitalizazio garaian, pazienteak behar adina medikamentu izango duela berraztertzen du eta pazienteei alta ematen dietenean "TTOs" prestatzen ditu. Oheburuko medikuari igortzen zaizkion dokumentuak



Londreseko St. George's ospitaleko farmazian sei hilabetez bizitutako esperientzia kontatzen digu Ana Colonek

Ana Colon

Sei hilabete Londreseko St. George's ospitaleko farmazian



dira; bertan, zenbat medikamentu eman zaion pazienteari jakinarazten da (oro har, 14 egunetarako); halaber, egin diren aldaketak eta zergatiak. Laburbilduz, ardura-pilo nork bere gain hartzeko; eskerrak, aldi oro, "BNF-ren" (Britainia Handiko formularioa) laguntza genuela; zalantzan geundenean beti kontsultatzen genuen.

Hori guztia gutxi bailitzan, Medikamentuei buruz Informatzeko Zentroa ere badago Ospitalean. Bertan, farmazialariak medikamentuen gaineko zalantzak erantzuten saiatzen dira, bai pertsonal sanitarioarenak, bai herritarrenak. Zentro horretan, hilabete bat inguru izan nintzen telefonoaren deiak erantzuten eta eskatutako informazioa bilatzen. Informazioa egiaztatu behar zen eta fidagarria izan behar zuen. Era berean, telefonoaren beste aldean zegoenak emandako informazioa ongi ulertu zuela eta hari-mutur guztiak lotuta zeudela argi eta garbi gelditu behar zen.

Azkenik, eta ezer ez ahaztearren, os-

pitaleko zerbitzu teknikoak ere badira. Sail horretan injektagarri-fabrikazio zerbitzuak daude; halaber, nutrizio parenteraleko prestakinak, erradiofarmazia, kalitatearen kontrola... Niri dagokidanez, hastapen-ikastaro labor bat egin ondoren, bolada batean uanean uneko prestakinak egiten izan nintzen, betiere kalitatearen kontrolak eta egonkortze-saiakuntzak betez.

Sei hilabete ekintzaz beteta eta lan desberdin asko eginez eta, aldi berean, mundu berri batean murgilduta, dibertitzen eta ikasten. Horien lan egiteko modua oso hierarkizatua da; hala ere, taldeen harteko harremanak onak dira. Jatorri eta kultura desberdinetako pertsonak dira baina helburu bera dute: lan egitea emaitza onak lortzeko, pazientearentzat ahalik eta arrisku gutxiena eta onura handiena bilatuz. Itxaro dut, lerro hauek irakurri ondoren hobeto jakingo duzula Erresuma Batua deritzon uharte handi horretan lan egiten duten gure lankideen zeregina nolakoa den.

ANA COLON



Aurrerantzean albisteak webgunean

Joan den urtean zuzendaritza batzordeak hartutako erabaki baten ondorioz, elkartearen baitan sortzen diren albisteak webgunean argitaratuko ditugu eta Farmaberrin, aldiz, kideek igorritako lanak eta erreportaiak agertuko dira.

Bi dira erabaki honekin lortu nahi diren helburuak. Batetik, Farmaberri lau hilean behin argitaratzen dela kontutan hartuta, bistan da ezinezkoa dela albisteak egunekotasuna dutenean zabaltzea kasu guztietan. Webguneak erraztasun handiagoa ematen du albisteak sortu ahala argitaratzeko eta planteamendu honek webgunea dinamizatzen lagunduko digula uste dugu.

Bestalde, albisteek Farmaberrin uzten duten hutsunea betetzeko aukera ugari sortzen dira eta horretarako, kideen artean sortutako taldeek kudeatutako atalak sortu nahi ditugu, pixkanaka pixkanaka gai ezberdinak jorrazteko eta gero eta kide gehiagoren ekarpenak argitaratu ahal izateko.

Webgunean albisterik zabaldu nahi izanez gero, edo Farmaberrirako ekarpenak egiteko prest bazaude, ez izan zalantzarik elkartearekin harremanetan jartzeko.

Maiatzaren 10ean, Aralarra

Udaberriko mendi-irteera

Iazko udaberriko mendi-irteera gogoan dugula, aurtent berriro ere mendira joatea erabaki dugu.

Dakizunez, iazko maiatzaren 4an, hogeit bat mendizale fin Urnieta-Arano ibilaldia egin genuen. Aranon bazkaldu eta gero, autobusez joan ginen abiapuntura. Egun gogoangarria izan zen.

Aurten, bada, Aralar mendira joango gara maiatzaren 10ean, igandean. Egitaraua, egutegia eta gainerako zehaztasunak geroago batean jasoko dituzu. Hauxe da laburbilduta egingo dugun ibilaldia. Esandako egunean, goizeko zortzi eta erdietan, Lizarrustiko mendate gainean, mikeleteen aparkalekuan dugu hitzordua. Lizarrustitik Lareoko urtegitira. Hemendik Eniriora. Jarrailu Igaratzako aterpera eta hortik Pagomarira. Hemendik guardaetxera eta San Migelera. Han bazkaldu, tertuliatxo bat egin, kantu eta autobusez Uharte-Arakilera jexkiko gineteke, eta Arbizutik barrena Lizarrustiraino kotxeak berreskuratzeke.

Aralar eta Andia mendilerroak, Aitzgorri... bistartzen ditugula, pago eta haritzen artean, lur karstikotan zehar, ibilaldi zoragarria. Bukatzeko, San Migel santutegian, mendiz inguratuta, bazkari ederra. Hasi, ba, hankak trebatzen!

FEUSEren Farmaburua Bizkaiko Farmazialarien Elkargo Ofizialako Euskara-Taldeari



Lehen orrialdean esan dugun moduan, Elkarteko Zuzendaritza batzordeak, atsegin handiz, 2008ko Feuseren Farmaburua Bizkaiko Farmazialarien Elkargo Ofizialeko euskara-taldeari ematea erabaki du.

Taldea, Elkargoko lan-talde moduan, ofizialki, 2004an sortu zen. Gaur egun, hamaika farmazialarik osatzen dute taldea. Hauexek dira: Bartzite Tranche, Beatriz Fortes, Goizeder Uria, Naia Erkoreca, Noelia Sanchez, Sonia Sanz, Iban Gutierrez, Izaskun Gorostiaga, Jokin Txakartegi, Koldo Gorostiaga eta Sonia Saenz de Buruaga.

Urteotan, farmazia arlo desberdinetan lan anitz burutu dituzte. Jarraian dituzu laburbilduta horietako batzuk.

Euskaraz idatzitako prospektu asko Sendagaiaik aldizkarian argitaratu dituzte, baita Elkargoko webgunean ere.

Gaixoei zuzendutako osasun-hezikuntzari buruzko *Día a día de la práctica farmacéutica*-n gomendioak argitaratu dituzte euskaraz, baita Elkargoko webgunean jarri ere. Horrez gainera, Argibideak buletini-

nean zenbait artikulua idatzi dituzte euskaraz. Halaber, BIFEOn webgunean "euskara txokoa" sortu dute eta, euskaraz egindako lanak eta link-ak jartzen dituzte bertan.

Elkargoak antolaturiko prestakuntza-ekintzen artean, lehenengo hitzaldia euskaraz antolatzea lortu dute; hiperaktibitateari buruz izango da; martxoan, hain zuzen.

Horrez gain, 2006-2007an, Bizkaiko farmazietan euskararen jakite-maila eta erabilpenari buruzko lan bat burutu zuten. Orain arte, antzekorik inoiz egin ez dena.

Feuseren farmaburua, beraz, Bizkaiko lankide horientzat, farmazia arloan euskararen erabilera bultzatzeko eta normalizatzeke egiten duten lan ederragatik.

Martxoaren 29an, bada, Bilbon, Bizkaiko Farmazialarien Elkargo Ofizialean, Elkartearen XIV. Batzar Orokorra egin ondoren, Feuseren Farmaburua emango diegu lankide jator horiei. Hantxe izango gara guztioi zorianak emateko.

